

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

842

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 30ekoa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, zeinaren bidez esleitzen baitira Hezkuntzako sailburuaren 2020ko urriaren 20ko Aginduan araututako dirulaguntzak, lanbide heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatueta makineria eta/edo ekipamendu aurreratua erosteko edo errentan hartzeko, 4.0 inguruneen eremuko teknologiak ezar ditzaten.

2020ko azaroaren 4an Hezkuntzako sailburuaren Agindua argitaratu zen. Agindu horren bidez, itunpeko ikastetxe pribatuei zuzendutako dirulaguntzen deialdia egin zen, eta, hain zuzen ere, dirulaguntzak jaso ahal izateko, aipatutako ikastetxe horiek, 2020-2021 ikasturtean, Agindu honen 1. artikuluan aipatutako erdi-mailako edo goi-mailako heziketa-zikloren bat izan behar zuten itunduta Euskal Autonomia Erkidegoan, eta deialdiaren xedea zen makineria eta/edo ekipamendu aurreratua erosteko edo errentan hartzeko kuotak finantzatzea, bai eta makineria eta/edo ekipamendu horietatik sortutako instalazio-gastuei aurre egitea ere, Aginduaren I. eranskinean adierazitako heziketa-zikloetan 4.0 inguruneen eremuarekin lotutako teknologien erabilera inplementatzeko asmoz.

2020ko urriaren 20ko Aginduaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta ikusi ostean dirulaguntzak emateko eta kudeatzeko prozedura jarduera guztietan bete zela, bai oinarri arautzaileetan zein indarreko araudian ezarritako prozeduran, aipatutako artikuluen arabera izendatutako Balorazio Batzordeak ebaluatu egin zituen aurkeztutako eskabideak, eta onetsi egin zuen, behar bezala arrazoituta, behin-behineko ebazpenaren proposamena, zeina baliabide elektroniko bidez jakinarazi baitzitzaien onuradunei 2020ko azaroaren 30ean, 10 egun naturaleko epea emanez, jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko.

Behin jakinarazpena eginda eta alegaziorik aurkeztu ez zenez, Balorazio Batzordeak prozeduraren ebazpen-proposamena egin eta Plangintza eta Antolaketako zuzendariak, organo instrukzio-egile gisa, Lanbide Heziketako sailburuordeari helarazi zion, 2020ko abenduaren 11ko aktan jasota dagoen moduan.

Proposamena Lanbide Heziketako sailburuordeari helarazita, eta Aginduaren 10. artikuluan ezarritakoari jarraituz, sailburuorde horri berari dagokio aurkeztutako eskabideei buruzko ebazpenak ematea eta erakunde interesdunei jakinaraztea; horretarako epea, gehienez, sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Adierazitakoagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Hezkuntzako sailburuaren 2020ko urriaren 20ko Aginduaren 9. artikuluan ezarritako irizpideekin bat etorriz, eta Balorazio Batzordeak proposatuta, deialdi honen oinarri arautzaileetan zehaztutako heziketa-zikloei lotutako 4.0 inguruneko teknologiak inplementatzea ahalbidetuko duen makineria eta/edo ekipamendu aurreratua erosteko edo errentan hartzeko dirulaguntzak ematea eranskinean zerrendatutako erakunde onuradunei, bakoitzari dagokion zenbatekoetan, eranskinean adierazitako moduan.

2. artikulua.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea, herritar oro jakitun egon dadin.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Gainerako baldintzetarako, kontuan hartuko da Hezkuntzako sailburuaren 2020ko urriaren 20ko Aginduan xedatutakoa.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hila-beteko epean, ebazpen hau erakunde onuradunei jakinarazten zaien egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 30a.

Lanbide Heziketako sailburuordea,
JORGE ARÉVALO TURRILLAS.

2021eko otsailaren 15a, astelehena

ERANSKINA

Dirulaguntzen ebazpena, lanbide heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuek makineria eta/edo ekipamendu aurreratua erosteko edo errentan hartzeko, 4.0 inguruneen eremuko teknologiak ezar ditzaten.

Eskatzaileen datuak											Balorazio-irizpideak				Azken balorazioa	
Zk	CAC VII kap	IFK	Udalerria	Erakunde eskatzailea	Kodea	Hezkuntza-zentroaren izena	Ikasleak % 20	Berri/Aplik % 30	Zikloak % 50	Lortutako puntuazioa	Esleituako kantitatea					
1	754.91	G-01.033.547	Vitoria-Gasteiz	Fundacion Diocesanas - Jesús Obrero Fundazioa	010248	CPIFP Egibide LHIPI	20,00	5,45	50,00	75,45	122.990,83 €					
2	754.91	R-4.800.613-D	Muskiz	Centro de Formación Somorrostro	014779	CPIFP Somorrostro LHIPI	11,81	21,82	40,12	73,75	120.219,63 €					
3	754.91	G-20.117.156	Ordizia	Goierriko Herrien Ekiniza Fundazioa	012581	CPIFP Goierri LHIPI	5,74	24,55	21,60	51,89	84.585,73 €					
4	754.91	F-20.045.241	Arrasate/ Mondragón	Mondragon Goi Eskola Politeknikoa JMA, S. Coop.	012456	CPIFP Mondragon Goi Esk. Politek. JMA, S. Coop LHI	3,48	30,00	11,11	44,59	72.686,02 €					
5	754.91	F-48.086.243	Markina-Xemein	Escuela Profesional Comarcal Lea Artibai, S. Coop.	014775	CPIFP Lea-Artibai LHIPI	3,25	13,64	18,52	35,41	57.721,74 €					
6	754.91	F-48.106.215	Derio	Politeknika Ikastegia Txorierri Scoop	014837	CPIFP Txorierri, S. Coop. Ltda. LHIPI	3,36	19,09	11,73	34,18	55.716,71 €					
7	754.91	G-20.567.327	Zumarraga	Urola Garaiko Fundazioa	012593	CPIFP Urola Garaiko Lanbide Eskola LHIPI	3,37	8,18	18,52	30,07	49.017,01 €					
8	754.91	R-48.00.409-G	Bilbao	Salesianos Deusto M.ª Auxiliadora-San Juan Bosco	014664	CPIFP Salesianos Deusto-M. Aux-Sa LHIPI	4,64	5,45	18,52	28,61	46.637,07 €					
9	754.91	G-95.426.797	Sopuerta	Centro San Viator	014824	CPIFP San Viator LHIPI	3,24	8,18	14,20	25,62	41.763,08 €					
10	754.91	G-20.884.417	Zarautz	Bitoriano Gandiaga Fundazioa	013380	CPIFP Oietza Lizeo Politeknikoa LHIPI	3,23	5,45	14,81	23,49	37.001,93 €					
11	754.91	R-4.800.615-I	Zeanuri	Arriatiko Zulaibar Lanbide Ikastegia	014723	CPES Arriatiako Zulaibar Lanbide Ikastegia BHP	1,90	10,91	9,88	22,69	36.986,89 €					
12	754.91	R-48.000.30-A	Bilbao	CPEPS Jesuitak Indautxu LBHIP	014634	CPIFP Jesuitak Politeknikoa LHIPI	2,59	8,18	9,88	20,65	33.661,51 €					
13	754.91	R-4.800.505-B	Durango	Casa Maristas San José	014728	CPIFP Maristak Durango LHIPI	3,09	5,45	9,88	18,42	30.026,39 €					
14	754.91	G-20.045.118	Andoain	Fundación Legarra Echeveste	012746	CPIFP La Salle-Berrozpe LHIPI	2,77	2,73	12,35	17,85	29.097,23 €					
15	754.91	R-48.006.14-B	Bilbao	Escuela Profesional Otxarkoaga	014680	CPIFP Innovación Social Diego Bergulices-Otxarkoaga LHIPI	2,47	0,00	14,81	17,28	28.168,07 €					
16	754.91	F-48.119.309	Bilbao	Colegio Zababuru Ikastetxea, S. Coop.	014718	CPIFP Zababuru LHIPI	2,81	2,73	8,02	13,56	22.104,11 €					
17	754.91	R-2.000.194-G	Iruñ	CPES Iruñgo La Salle BHP	012742	CPIFP Iruñgo La Salle LHIPI	1,83	0,00	10,49	12,32	20.082,79 €					
18	754.91	R-2.000.419-H	Urnieta	Salesianos Urnieta	012572	CPES Salesianos Urnieta BHP	2,10	0,00	8,02	10,12	16.496,58 €					
19	754.91	B-95.657.805	Santurtzi	Calasanz Santurtzi, S.L.	014810	CPIFP Calasanz Lanbide Ikastegia LHIPI	1,96	8,18	4,32	14,46	11.369,04 €					
20	754.91	B-20.409.892	Donostia / San Sebastián	Centro de Estudios AEG Aroka, S.L.	012479	CPIFP Centro de Estudios AEG LHIPI	0,78	5,45	2,47	8,70	9.734,67 €					
21	754.91	B-20.676.680	Donostia / San Sebastián	Centro de Formación de Administración y Hostelería, S.L.	012491	CPES CODEA BHP	1,61	0,00	4,32	5,93	9.666,47 €					
22	754.91	F-48.537.518	Bilbao	Peñascal, S. Coop.	015069	CPIFP Peñascal LHIPI	2,11	0,00	10,49	12,60	9.453,00 €					
23	754.91	B-48.153.555	Bilbao	Centro San Luis, S.L.	014696	CPES San Luis BHP	1,98	0,00	3,70	5,68	9.258,94 €					
24	754.91	A-28.814.531	Bilbao	Almi Bilbao, S.A.L.	014615	CPES Almi BHP	1,96	0,00	3,70	5,66	9.226,35 €					
25	754.91	R-48.005.04-E	Zalla	Casa Maristas-San Miguel	014828	CPEIPS Maristas-San Miguel HLBHIP	0,35	0,00	4,94	5,29	7.422,15 €					

2021eko otsailaren 15a, astelehena

Eskatzaileen datuak						Balorazio-irizpideak				Azken balorazioa	
Zk	CAC VII kap	IFK	Udalerria	Erakunde eskatzailea	Kodea	Hezkuntza-zentroaren izena	Ikasleak % 20	Berri-Apik % 30	Zikloak % 50	Lortutako puntuazioa	Esleututako kantitatea
26	754.91	F-20.057.865	Tolosa	Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola, S. Coop	012566	CPIFP Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola LHPI	1,37	13,64	3,09	18,10	7.274,68 €
27	754.91	B-48.133.946	Bilbao	Centro de Estudios Mikelidi, S.L.U.	014669	CPES Mikelidi BHIP	1,32	0,00	2,47	3,79	6.178,06 €
28	754.91	A-20.045.548	Donostia / San Sebastián	Cebanc, S.A.	012497	CPIFP Cebanc LHPI	1,30	0,00	2,47	3,77	6.145,47 €
29	754.91	B-95.096.244	Barakaldo	Asesoramiento y Formación Ikasauto, S.L.	015386	CPES Ikasauto BHIP	0,65	0,00	3,09	3,74	6.096,56 €
30	754.91	B-48.217.442	Getxo	Centro de Formación Profesional Academia Ibaiondo, S.L.L.	014747	CPES Ibaiondo BHIP	0,74	0,00	1,23	1,97	3.211,29 €
Esleututako eskabide kopurua: 30						Σ	97,81	199,08	348,75	645,64	1.000.000,00 €